

BEZEROEKI KO HARREMANA:

Bezeroek lehen esperientzia izan ondoren barriro errepikatzeko eta bezero barriak lehen aldiz parte hartzera animatzeko honako hau egingo dogu:

-Tik Tok-en, Instagram-en eta Facebook-en jadanik lehen esperientzia izan daben bezeroen testigantzak igoko doguz, lehen eskuko esperientzien iritziak entzun ahal izateko. Horrez gain, sare sozial honeek profil desbardinakaz kontaktuan jartzea ahalbidetzen dabe, beraz, aplikazioari buruz zalantzak daukazana gai izango da Instagram-en, Tik Tok-en eta Facebook-en bidez gugaz kontaktuan jartzeko eta horrela, guk informazio gehiago emon ahalko deusagu.

-Egindako bolondres lana amaitzean, aplikazioan bertan bezeroek balorazio inkesta bat bete beharko dabe euren iritzia emoteko eta hobekuntzak jakinarazteko.

-Play Store eta App Store-n bidez be, balorazioak egiteko aukera eukiko dabe. Horrela, bezero barriek aplikazioa deskargatu baino lehen gainontzeko bezeroen iritzia baloratzeko aukera eukiko dabe.

-Aplikazioan profila sortzean bezeroek euren email-a sartu behar dabenez, email-ez hareekaz komunikatu ahalko gara zerbitzu eta esperientzia barrien berri emoteko.

Hortaz, behin gure aplikazioaren berri emonda, jendea gure aplikazioaren erabiltzaile izateko eta hareen konfiantza lortzeko, bolondresen datuen babesari eta pribadutasunari garrantzi handia emongo deusegu. Aplikazioaren erabiltzaile izaterakoan izen-abizenak, jaioteguna, bizilekua, dakizan hizkuntza desbardinak, telefono zenbakia eta email-a zehaztea funtsezkoa izango da. Horrez gain, aplikazio bat danez, telefonoaren sistemaren informazioa be gordeta geratzen da. Beraz, datuen babesa eta pribadutasuna bermatzeko asmoz, “kontratu” elektroniko bat bidaliko deusegu, datuak babesteko gure konpromesua agerian itxiko dauana eta urratu ezker, neurriak hartu ahalko dirala azalduko dauana. Horrela, gure bezeroen konfiantza lortuko dogu, euren datuak babestuta dagozala jakingo dabelako.